

Errekabarriko Gurako Elkarteak jolastokien ereduari buruz hausnartzeko jardunaldi bat antolatu du

Goteo plataformako *crowdfunding* kanpaina bat bultzatu dute topaketa finantziazteko asmoz

2018ko apirilak 10. Errekabarri Ikastolako Guraso Elkarteak mahai gainean dagoen jolastokien ereduari buruzko eztabaida sustatu nahi du. Horretarako jardunaldi bat antolatu du, maiatzaren 19an Salburuako Gizarte Etxean burutuko dena. “Gure helburua hausnarketa hau ahalik eta gehien zabaltzea da eta Gasteizko beste hezkuntza komunitateekin batera egitea da hausnarketa kolektiboa izan dadin”, azaldu dute Errekabarriko gurasoek.

Jardunaldia finantziazteko asmoz, *crowdfunding* kanpaina bultzatu dute, gaur bertan abiatzen dena. “Gure helburu nagusia, topaketa egiteko dirua lortzeaz gain noski, ariketa hau ahalik eta kolektiboen izatea da; guk abiatu dugu antolaketa baina ez dugu Errekabarriko jolastokiari buruz hitz egin nahi, jolastokien ereduari buruz hitz egin nahi dugu eta finantzazioan beste hezkuntza komunitate batzuk ere biltzea modu interesgarria iruditzen zitzaigun”, adierazi dute.

Topaketarako kartel oso interesgarria lotu dute Errekabarritik. Hiru hitzaldi egongo dira eta osteko eztabaida. Lehen hitzaldia **Heike Freirek** eskainiko du: “Jolastoki biziak, natura eskoletara sartzeko aukera bat”. Freirek -osasun, ongizate eta naturan ikastea aditua- eskoletan natura sartzeak duen onurei buruz hitz egingo du. Bigarren ekarpena Dunak Taldeko **Amaia Albeniz eta Zuriñe Burgoa** arkitekta feministek egingo dute, “Eskolako patioa, berdintasunean hazi eta hezi” izenburuarekin. Haiekin, gizarteratze lehen eremua den jolastokiak aztertuko dira genero ikuspegi batetik. Azkenik, **Carme Cols eta Pitu Fernandez** ere egongo dira, “El Nou Safareig”-eko arduradunak, “Jolastoki berria diseinatzeko prozesua, komunitatea sortzeko giltzarri” hitzaldia eskaintzen. Kataluniatik datozen irakasle ohi bikote honek ehundaka eskola lagundu dituzte haien kanpo espazioak eraldatzeko prozesuan. Beraiekin batera, jolastokia aldatzeko prozesuan hezkuntza komunitatea josteko eta sustraitzeko oinarriak jarri nahi ditugu.

Errekabarri ikastola, eraikitze prozesuan dagoena, aukeraz betetako egoeran dagoela aldarrikatzen du guraso talde honek. Hala ere, planoetan aurreikusten den jolastokia ohiko eredu mantentzen du, zementuz beteta eta futbol zelaiak erdigunean kokatuta. Hori dela eta, iaz hasi zen lanean guraso talde hau: “Jolastoki eredu birpentsatu nahi dugu ikuspegi bikoitz batetatik; alde batetik, kanpo espazioa berdintasun eremua izatea eta, bestetik, jolas askean, natura eta honen zaintza ardatz izatea”, azaldu dute. “Gure lehen pausua marko teorikoa ezartzen lagunduko digun jardunaldiak egitea da, ostean gure barne prozesuari ekingo diogu gure komunitate guztiarekin batera eredurik egokiena erabakitzeke”.